medicusmundi
bizkaia

# MUJERES Y COMUNIDADES QUE LIDERAN CAMBIOS

# ALDAKETAK GIDATZEN DITUZTEN EMAKUME ETA KOMUNITATEAK



## 2025EKO JARDUERA MEMORIA

## MEMORIA DE ACTIVIDADES 2025

Depósito Legal / Lege Gordailua:  BI 1556-2012

Diseño de portada: **Ana Linares (Pontella.es)**

4 Presidentearen agurra

6 Zer da **medicus**mundi Bizkaia?

8 Guatemala

10 República Democrática del Congo

12 Honduras

14 Ruanda

16 Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza

18 Informe económico

# Presidentearen **agurra**

**2025eko lana amaitu eta kontuak itxi eta ikuskatu ondoren, aurten ere, zuzendaritza batzordeari dagokio elkarteko bazkide eta boluntario guztiei iaz egindako lanaren berri ematea eta elkartearen funtsak zertarako erabili diren azaltzea. Horretarako, memoria labur hau bidaltzen dizuegu, arlokako informazio pilula gisa. Era berean, bazkideen batzarrera gonbidatzen zaituztegu; bertan, azalpen sakonagoak emango ditugu eta zuen zalantza eta galdera guztiak erantzungo dizkizuegu.**

**Testuinguru global gero eta konplexuagoan egiten dugu lan medicusmundi Bizkaiako lagunek. Aberastasunak pertsona gutxiren eskutan kontzentratzen jarraitzen du eta gero eta pertsona gehiago ari da egoera zailak bizitzen (pobrezia, desplazamendu behartuak, osasun arazoak, etab.). Horretarako arrazoietako batzuk hauexek dira: zerbitzu publiko guztiak pribatizatu nahi dituen korronte neoliberal gero eta handiagoa; gatazkak konpontzeko metodo gisa —politikaren ordez— indarkeria eta gerra jartzeak sortzen duen ziurgabetasuna; gastu militarra handitzeko oinarrizko gizarte zerbitzuen (osasuna, hezkuntza, lankidetza, etab.) gastuak murriztea; ideologia faxista, arrazista eta xenofoboaren etengabeko hazkundea; genero berdintasunaren eta aniztasunaren aldeko politikak zalantzan jartzea; edota klima aldaketa.**

**medicusmundi Bizkaian baikorrak izan nahi dugu eta, egungo joerak kontuan hartuta, uste dugu gure eguneroko lana, ozeano**

Una vez cerradas y auditadas las cuentas y finalizado el trabajo del año 2025, nos corresponde un año más a la junta directiva dar cuenta a todas las personas socias y voluntarias de la asociación del trabajo realizado el año pasado y justificar el destino de los fondos de la asociación, para lo cual os enviamos esta breve memoria a modo de píldoras informativas por áreas. Así mismo, os remitimos a la asamblea de personas socias, a la que estáis todas invitadas, donde ampliaremos la información y podremos responderos a todas vuestras dudas y preguntas.

En **medicus**mundi Bizkaia trabajamos en un contexto global cada vez más complicado. La creciente corriente neoliberal que pretende privatizar todos los servicios públicos, la incertidumbre que genera la sustitución de la política por la violencia y la guerra como método de resolución de conflictos, el aumento de los gastos militares generalmente mediante recorte de gastos de los servicios sociales básicos (sanidad, educación, cooperación, etc.), el constante crecimiento de la ideología fascista, racista y xenófoba, el cuestionamiento de políticas a favor de la igualdad de género y de la diversidad o el cambio climático están generando una cada vez mayor concentración de la riqueza en pocas manos y situaciones cada vez más complicadas para la mayoría de la población (pobreza, desplazamientos forzosos, problemas sanitarios, etc.).

En **medicus**mundi Bizkaia queremos ser optimistas y pensamos que nuestro trabajo



globalean ur tanta bat baino ez dela dakigun arren, oraindik ere beharrezkoa dela komunitate pobretuenei laguntzeko. Mundu bidezkoago eta osasuntsuago baten alde lan egiten jarraitu nahi dugu eta, horretarako, zuen laguntza eta finantzatzen gaituzten erakunde publiko zein pribatuen babesa izaten jarraitu nahi dugu.

Ez dut amaitu nahi **medicus**mundi Bizkaiako langile eta boluntarioei bihotzez eskerrak eman gabe —haiek eskainitako lan orduengatik eta dedikazioagatik—, bai eta Euskal Herriko, Latinoamerikako eta Afrikako erakunde aliatuei ere: haiekin partekatzen dugu gure lana eta haiekin amesten eta eraikitzen dugu mundu bidezkoago bat.

diario, aunque sea una gota de agua en el océano global, es cada día más necesario para ayudar a las comunidades más empobrecidas. Queremos seguir trabajando por un mundo más justo y más sano y, para ello, queremos seguir contando con vuestra ayuda y con el apoyo de las instituciones tanto públicas como privadas que nos financian.

No quiero terminar sin agradecer de corazón a las personas trabajadoras y voluntarias de **medicus**mundi Bizkaia por las horas de trabajo y dedicación que hacen posible todo el trabajo realizado y también a las organizaciones aliadas, tanto vascas como de América Latina o África con las que compartimos nuestro trabajo y con las que soñamos y construimos un mundo más justo.

**Mitxel Casado Souto**

**medicus**mundi Bizkaiako presidentea

# Zer da **medicus**mundi Bizkaia?

**medicus**mundi Bizkaia es una Organización No Gubernamental para el Desarrollo, creada en 1966 en Bilbao, con el objetivo de generar cambios en la sociedad, fomentando una cultura de solidaridad y compromisos ciudadanos, para la erradicación de la pobreza y garantizar que la salud sea un derecho al alcance de todas las personas. Las personas que formamos **medicus**mundi Bizkaia, tanto las socias como quienes colaboran de forma voluntaria y las personas contratadas, tenemos el objetivo de hacer que la salud de las personas sea una realidad, ¿te unes a nuestro objetivo? Realizamos proyectos de cooperación al desarrollo económico y social en Guatemala, Honduras, Ruanda y la República Democrática del Congo.

En Bizkaia llevamos a cabo acciones de educación para la transformación social y sensibilización contra las violencias machistas, a favor de la diversidad sexual y de género y en defensa de los sistemas públicos de salud. **medicus**mundi Bizkaia forma parte de la Federación de Asociaciones Medicus Mundi España (FAMME), que en 2025 agrupaba a 8 asociaciones autónomas. Esta a su vez pertenece a **medicus**mundi Internacional, junto a otras organizaciones europeas.



# Elkartearen **egitura**

La composición social de **medicus**mundi Bizkaia en 2025:

## Personas asociadas

| | |
|---|---|
| Hombres | 131 |
| Mujeres | 146 |
| P. Jurídicas | 4 |
| **Total** | **281** |

## Voluntariado

| | |
|---|---|
| Hombres | 9 |
| Mujeres | 37 |
| **Total** | **46** |

## Personal contratado en sede

| | |
|---|---|
| Hombres | 3 |
| Mujeres | 2 |
| **Total** | **5** |

## Junta Directiva

| | |
|---|---|
| Hombres | 4 |
| Mujeres | 3 |
| **Total** | **7** |

**medicus**mundi Bizkaiak egitura egonkor bat dauka bere Bilboko bulegoan, non bost pertsonek osatutako lantalde batek idazkaritza, administrazio, koordinazio, gizarte eraldaketarako hezkuntza, lankidetza proiektuak eta komunikazio lanak burutzen dituen.

Boluntarioek osatutako zuzendaritza batzordeak erakundearen erabaki estrategikoak hartzen ditu. Hauek urtean behin batzen den eta erabakiak hartzeko organo gorena den asanblada orokorrean aukeratzen dira.

Boluntarioak dira **medicus**mundi Bizkaiaren oinarria eta erakundearen ekintzetan parte hartzen dute modu altruistan.

## ¿Quieres **colaborar** con **medicus**mundi Bizkaia?

- Hazte socio/a y ayúdanos
- Actualiza tu cuota, si ya eres socia
- Colabora en nuestros proyectos haciendo un donativo
- Ofrécete como voluntario/a para nuestras acciones y campañas
- Síguenos en nuestras Redes Sociales:

  - **facebook.com/medicusmundibiz**
  - **@medicusmundibiz**
  - **@medicusmundibizkaia**
  - **youtube.com/medicusmundibizkaia**

- Visítanos en **www.medicusmundibizkaia.org**
- Escríbenos a **bizkaia@medicusmundi.es**







# Guatemala



2025ean, Guatemalak tentsio eta aldaketa urtea bizi izan du, eta gizarte zibil antolatuak funtsezko zeregina izan du prozesu demokratikoaren defentsan eta giza eskubideen sustapenean. Mobilizazioek eta gizartean eragiteko ekintzek, zalantzarik gabe, ustelkeriaren aurkako borroka eta zuzenbide estatuaren defentsa agenda publikoan mantentzen lagundu dute.

Donald Trump iritsi ondoren Ameriketako Estatu Batuek ezarritako atzerri eta migrazio politikek eragina izan dute. Politika horiek multilateralismoa zalantzan jartzen dute, giza eskubideetan atzerakada dakarte eta zaurgarritasuna eta presioa areagotzen dute Guatemala bezalako herrialdeetan, migranteen jatorri edo igarobide baitira.

Testuinguru horretan, medicusmundi Bizkaian osasunerako eskubidea sustatzeko, tokiko gaitasunak eta sistema publikoak indartzeko erakunde sozialekin eta eragile publikoekin egiten dugun lana indartu dugu. Emakumeen eskubideak bultzatzen ditugu —indarkerien aurkako borroka, osasun menstruala eta indarkeria obstetrikoa barne—, eta lehen mailako arreta eta osasun komunitarioa sustatzen ditugu, indigenei eta landa komunitateei beren eskubide eta lurraldeen defentsan lagunduz.






## Derechos de las **mujeres**

- Acompañamiento a las organizaciones locales en la construcción del sujeto político mujer.
- La violencia obstétrica como un problema de la salud Pública.
- La salud menstrual: un derecho de las mujeres.
- Abordaje de las múltiples violencias y la trata de menores y adolescentes en el país.

**SOCIAS LOCALES:**
La Cuerda, La Alianza, ASECSA, Moloj y H. de San José Obrero.

**FINANCIADORAS:**
eLankidetza/AVCS, Fundación Reparto Solidario, Ayuntamientos de Bilbao, Durango, Muskiz y Gernika, Fundación Estatal Salud, Infancia y Bienestar Social (FCSAI) / Agencia Española de Cooperación Internacional y Desarrollo (AECID) y Gobierno de Cantabria.

## Derecho a la **salud**

- Promoción de la Atención Primaria de Salud y de la Salud comunitaria incidiendo en la salud materno infantil, desnutrición crónica y la salud visual.
- Respaldo a las comunidades rurales e indígenas para la incidencia social y política en la reivindicación del derecho a la salud y defensa del territorio.
- Apoyo a los movimientos indígenas en su lucha por la reivindicación de un modelo de salud integral y adaptado a la cultura maya.

**SOCIAS LOCALES:**
Ministerio de Salud Pública (MSPAS) y Asistencia Social, ASECSA, CPDL, y H. de San José Obrero.

**FINANCIADORAS:**
Ayuntamiento de Getxo, General Óptica, Fundación Carmen Gandarias y eLankidetza.

# República Democrática del Congo




En febrero de 2025 el Movimiento 23 de Marzo se hizo con el control de Goma (capital de la provincia Kivu Norte) y, entre otras cuestiones, se cerraron el aeropuerto y los bancos de la ciudad. Más tarde el M23 llegó a Bukavu (capital de Kivu Sur) y ha continuado expandiéndose. En ese contexto, RDC y Ruanda han firmado un acuerdo de paz impulsado por Estados Unidos y que incluye convenios de explotaciones mineras.

A pesar de la guerra y de la incertidumbre, nuestras socias locales han podido continuar con los proyectos en marcha, demostrando resiliencia y capacidad para trabajar en contextos tan complejos.






**medicus**mundi Bizkaia seguirá apostando por apoyar a organizaciones congoleñas en los Kivu, tan próximo a Ruanda. En esta región rica en recursos materiales pero devastada por décadas de conflicto armado, es necesario fortalecer el tejido social, atendiendo emergencias y necesidades humanitarias, construyendo una cultura de paz, creando alternativas de desarrollo e impulsando los derechos, la salud y los liderazgos de las mujeres.

## Genero indarkeria amaitzeko borroka eta emakumeen ahalduntzea

- Politika, segurtasun, komunitate eta osasun arloko agintariak koordinatzea, generoan oinarritutako indarkeria kasuen arreta hobetzeko.
- Komunitateko lider diren emakumeen gaitasunak indartzea eta emakumeak saretzea.
- Maskulinitate positiboak sustatzea.
- Kivuko eta Bizkaiko emakume kongoarrak artikulatzea, eta jasan dituzten indarkeriak eta haien estrategiak ikertzea.
- Irrati komunitarioetan emakumeen eskubideen eta osasunaren aldeko ekintzak burutzea.
- Runingu eta Kamanyolako osasun zentroak indartzea.

**TOKIKO BAZKIDEA:** SPR.
**FINANTZATZAILEA:** Bizkaiko Foru Aldundia.



## Bake eraikuntza eta emakume merkatarien eskubideak

- Ruandarako muga igarotzen duten emakume merkatari txikiak saretzea eta haien prestakuntza eta eragin gaitasuna indartzea.
- Mugaren bi aldeetako emakumeen eta agintarien artean konfiantzazko espazioak sortzea, informazioa erraztuz, elkarren balioa aitortuz, izapideak, segurtasuna eta harremanak hobetuz.
- Emakume taldeek aurrezki kontuak, gune seguruak, prestakuntzakoak eta elkarri laguntzekoak sortzea.

**TOKIKO BAZKIDEA:** SPR.
**FINANTZATZAILEA:** eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia.

## Ekintza humanitarioa

Mpox izurriteak (tximinoaren baztanga) eragindako osasun krisiari erantzuteko larrialdi-laguntza: prebentzioa indartzea eta laguntza humanitarioa eskaintzea Nyangezi eta Ruzizi osasun eremuetan (Hego Kivu probintzia).

**TOKIKO BAZKIDEA:** SPR.
**FINANTZATZAILEA:** Muskizko Udala, Fundación Reparto Solidario.




# Honduras

La crisis y la desconfianza continuaron marcando el contexto social y político de Honduras. En 2025, el país vivió un año electoral clave que culminó con la victoria de Nasry Asfura, del Partido Nacional de Honduras, en un proceso caracterizado por la polarización y cuestionamientos sobre su transparencia.

Persisten las profundas desigualdades sociales, limitaciones en el acceso a servicios básicos y situaciones de violencia que afectan especialmente a las poblaciones en situación de mayor vulnerabilidad.



En este contexto de incertidumbre política, y ante el endurecimiento de las políticas migratorias y el cierre de fronteras por parte de Estados Unidos, las dinámicas migratorias se han mantenido, aunque transformadas y en condiciones más precarias, afectando especialmente a la población joven.

A pesar de este escenario, desde **medicus**mundi Bizkaia seguimos avanzando en nuestra estrategia interinstitucional con instancias públicas para garantizar los derechos humanos, especialmente el derecho a la salud.

## Osasunerako eskubidea

- Osasun komunitarioa sustatzea eta, modu jasangarrian, lurraldea klima aldaketari aurre egiteko egokitzea.

**TOKIKO BAZKIDEAK**: Secretaría de Salud (SESAL), Municipalidad de la Esperanza eta CEM-H.

**FINANTZATZAILEAK**: Gobierno de Cantabria.







# Emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideak

- Sistema publikoak laguntzea eta indartzea, emakumeen eta LGTBIQ+ pertsonen eskubideen urraketen aurrean erantzun integrala emateko duten gaitasuna hobetzeko, bereziki osasun mentalari eta indarkeria sinbolikoari helduz.

- Emakumeen eta LGTBIQ+ kolektiboen eskubideak aldarrikatzeko, sustatzeko eta defendatzeko borrokatzen diren bertako elkarteak laguntzea.

- Emakumeek indarkeriarik gabe bizitzeko duten eskubidea sustatu eta defendatzea.

**TOKIKO BAZKIDEAK**: Secretaría de Salud (SESAL), Secretaría de Desarrollo Social (SEDESOL), Secretaría de Derechos Humanos (SEDH), Secretaría de la Mujer (SEMUJER), Municipalidad de La Ceiba, UDIMUF, OPROUCE, CEM-H, SOMOS CDC eta Casiopea.

**FINANTZATZAILEAK**: eLankidetza, Eusko Jaurlaritzako Gazteria Saila, Bizkaiko Foru Aldundia, Xunta de Galicia, Bizkaiko Abokatuen Elkargo Ohoretsua eta Principado de Asturias.






# Ruanda

**medicus**mundi Bizkaiak ia 60 urte darama Ruandan lanean, eta hamarkada hauetan gauza askok hobera egin dute. Halere, herrialdeak erronka ugari ditu oraindik: Kamonyiko biztanleen erdia maila sozioekonomiko baxuenean bizi da, emakumeek lan gainkarga handia dute, aukera faltagatik desplazamendu behartuak daude, baliabide naturalen gaineko presio handia dago, Afrikako herrialderik zaurgarrienetakoa da klima aldaketaren aurrean, Kongoko gatazkek eragin zuzena dute herrialdean...

Horregatik, muga aldean eskualde mailako bakea eraikitzea eta landa eremuan garapen ekonomikoa, erresilientzia, jasangarritasuna eta emakumeen ahalduntzea sustatzea lehentasunezkoa da guretzat.

Helburu horiek izanda, **medicus**mundi Arabarekin batera, tokiko emakumeak, kooperatibak eta gizarte zibil antolatua indartzen jarraituko dugu, haiek izan behar baitira bertako eraldaketa prozesuen buru, beren lehentasunetatik abiatuta.



## Comercio justo y economía social y solidaria

- Promover la sostenibilidad y autonomía de cooperativas de mujeres mediante el refuerzo de capacidades, formación y mejora de infraestructuras.
- Impulsar la creación de una Tienda conjunta de Comercio Justo y promoción de redes de alianza entre mujeres cooperativistas.
- Mejorar la transformación de productos agroalimentarios y manufacturados y su comercialización.

**SOCIAS LOCALES**: ARDE-KUBAHO, UGAMA, COFORWA.
**FINANCIADORAS**: eLankidetza-Agencia Vasca de Cooperación y Solidaridad, Administraciones Apodaka, Rioja Alta S.A., Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz.



## Construcción de **paz** a nivel regional

- Generar confianza y reconocimiento entre las mujeres comerciantes, autoridades locales y fronterizas de Ruanda y RDC para avanzar en procesos de comercio y de construcción de paz.
- Formación, debate y elaboración de propuestas de políticas migratorias, derechos económicos y derechos de mujeres e infancia, para mejorar la situación de las mujeres en materia de seguridad, economía y salud en la frontera.

**SOCIA LOCAL:** ARDE-KUBAHO.
**FINANCIADORA:** eLankidetza.



## **Derechos** y **empoderamiento** de las mujeres

- Formaciones sobre los derechos de las mujeres, que después se replican en grupos comunitarios, con enfoque "de mujer a mujer".
- Fortalecimiento personal, colectivo y organizativo para crear espacios seguros, de cuidados y libres de violencias, con un enfoque feminista interseccional,
- Posicionamiento de las mujeres como sujetas políticas mediante plataformas de gobernanza, cargos de representación, incidencia comunitaria, potenciando su agencia colectiva y transformadora.

## Adaptación al **cambio climático** y alternativas **sostenibles**

- Catalizar procesos de transformación ecosocial con justicia de género, impulso de la adaptación y mitigación al cambio climático desde el liderazgo de mujeres rurales organizadas.
- Producción agroecológica sostenible.
- Soluciones comunitarias en agua, saneamiento y resiliencia climática desde el cuidado y la soberanía territorial.

# Educación para la transformación social

Continuando con líneas de trabajo de años anteriores y coordinados con el trabajo que realizamos en terreno, impulsamos herramientas y procesos educativos y comunitarios para ofrecer una atención sanitaria más inclusiva y una mejor sociedad a las mujeres y a las personas LGTBIQ+,

Innovamos con un proceso de arte-sanación que se está realizado con grupos LGTBIQ+ y de mujeres que han sufrido violencias, y abordando temas invisibilizados como la violencia obstétrica y la salud menstrual.

Destacamos las visitas de activistas de Guatemala y de viajes a Centroamérica de estudiantes, profesionales y voluntariado, propiciando intercambios de experiencias y saberes.

A nivel interno, avanzamos con el proceso de cambio organizacional pro-equidad de género.

## Genero berdintasunaren aldeko aldaketa

- Erakunde barneko genero diagnostikoa egin dugu, modu partehartzeailean.
- Genero berdintasunaren aldeko **medicus**mundi Bizkaiaren ekintza plan estrategiko berria prestatzeko saioak egin ditugu.

**KOLABORATZAILEA:** equipare.
**FINANTZIATZAILEA:** eLankidetza.



## Emakumeen eta sexu eta genero aniztasunaren kontrako indarkeriei aurre

- LGTBIQ+ pertsonek osasun, hezkuntza eta gizarte arloan jasaten dituzten indarkeriei buruzko elkarrizketa mahaiak, diagnosia eta webinarioak,
- Gida didaktikoak.
- Prestakuntza saioak ikasleekin eta osasun arloko langileekin.
- "Zauritik erresistentziara" indarkeria jasan duten LGTBIQ+ eta emakumeentzako arte eta sendaketa prozesua.






## Erdialdeko Amerika eta Afrikako errealitateei eta lankidetzari buruzko sentsibilizazioa

- *Durangotik Hegoaldera*: argazki erakusketa, "Semillas de Kivu" eta "Nataxik (memoria)" dokumentalak, indarkeria gineko-obstetrikoari buruzko solasaldia Nahia Alkortarekin, osasun menstrualari buruzko saioa Mundo Ivaginario-rekin.
- "Erresilientzia gerra garaian. Emakume kongoarrak, bake eta duintasun ehule" hitzaldia Muskizko Elkartasun Jardunaldietan.
- "Protagonisten eskola. Gure hirian balioak ereiten" proiektua, Bilboko, Guatemalako eta Hondurasko gazteekin.
- Euskadiko Gazteak Lankidetzan programa. Bi erizain Ciudad Mujer-en (Honduras) aritu ziren boluntario.




- "Euskal lankidetzaren estrategiak indarkerien aurrean. Honduras, Senegal, Guatemala eta Palestinako ahotsak" jardunaldia, Bilbon.
- Hitzaldia amatasunari, indarkeria obstetrikoari, dolu perinatalari eta osasun mentalari buruzko Esku Hutsiken IV. Kongresuan, Portugaleten.
- Ura eta Garapenerako Lankidetzari buruzko Jardunaldia, Getxon.
- Medikuntza ikasleen trukerako euskal elkartearekin (AVIEM) topaketa.
- "medicusmundi eta sexu eta ugalketa eskubideak Guatemalan" hitzaldia Deustuko Unibertsitatean.
- Esperientzia trukeak Guatemalako aktibista eta Bizkaiko eragileen artean.
- Getxotik Mundura. Mundutik Getxora, nazioarteko lankidetzaren jaialdia.
- "Osasuna garapenerako lankidetzan eta ekintza humanitarioan" txostenaren aurkezpena Eusko Legebiltzarrean.



**ERAGILE KOLABORATZAILEAK:** Pikara Magazine, Metik, EntrAmar, Muskizko Udala, Durangoko Udala, Getxoko Udala, Bilboko Udala, Osatzen, EHU, Deustuko Uni., Aldarte, Asoc Margotu, Esku Hutsik, Coordinadora ONGD Euskadi, AVIEM, Médicos del Mundo, HEGOA, Zabalketa, Gurari, AMUGE, Ekologistak Martxan, Andragunea, Bizkaiko Medikuen Elkargoa.

**FINANTZIATZAILEAK:** eLankidetza-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia, Bizkaiko Foru Aldundia, Bilboko Udala, Durangoko Udala.

# Cuentas
e informe económico

El rigor en la gestión de los fondos públicos y privados, y la transparencia e información sobre el origen y destino de los mismos, son principios que guían la actuación de **medicus**mundi Bizkaia. Por ello, todos los proyectos y actividades están sometidos a controles, informes y evaluaciones periódicas, tanto por parte del personal técnico y la junta directiva, como por nuestros financiadores. Además, el rigor y transparencia están avalados por la publicación anual de las cuentas, auditadas externamente y depositadas en los correspondientes registros. A-zeta consultores asesores se ha encargado de auditar las cuentas, habiendo emitido el correspondiente informe favorable sin salvedades. Desde **medicus**mundi entendemos que la rendición de cuentas no sólo incluye la transparencia en el uso de los recursos monetarios, también en la toma de decisiones y en las acciones realizadas. Por tanto, nos acogemos a la auditoría de prácticas de Buen Gobierno y Transparencia promovida por la Coordinadora de ONGD del Estado.

## Destino de los recursos por países

Ruanda 137.500€

Guatemala 1.183.360€

Honduras 263.872€

R.D. Congo 105.820€

**Total: 1.690.552€**



## Distribución de gastos

**Total: 1.967.603€**



**4,99%**
Administración y Gestión
**98.137€**

**8,81%**
Proyectos de Educación para la Transformación Social/Género
**173.456€**

**0,28%**
Desarrollo Asociativo - Comunicación y Voluntariado
**5.458€**

**85,92%**
Proyectos de Cooperación para el Desarrollo y Ayuda Humanitaria
**1.690.552€**

## Distribución de ingresos

**Total: 2.030.421€**

### INGRESOS PUBLICOS

**54,55%**
Gobierno Vasco > **1.107.605€**

**16,06%**
Fundación CSAI / AECID > **326.163€**

**11,53%**
Diputación Foral de Bizkaia > **234.180€**

**8,79%**
**Ayuntamientos** (Bilbao, Durango, Getxo, Muskiz, Gernika, Vitoria-Gasteiz) > **178.527€**

**1,64%**
Principado Asturias > **33.342€**

**1,41%**
Gobierno de Cantabria > **28.541€**

### INGRESOS PRIVADOS

**2,14%**
**Subvenciones Privadas y Don.fin. Legados**
(Fund. Carmen Gandarias, Fund. Reparto Solidario, General Óptica, Ilustre Colegio de la Abogacía de Bizkaia, Rioja Alta SA, Administraciones Apodaka SL) > **43.430€**

**1,90%**
Cuotas de personas socias > **38.601€**

**1,44%**
Donativos de particulares, empresas y entidades privadas > **29.150€**

**0,38%**
Otros ingresos de la actividad > **7.721€**

**0,16%**
Ingresos financieros y otros conceptos >
**3.161€**

**93,98%**
**TOTAL INGRESOS PUBLICOS**
**1.908.358€**

**6,02%**
**TOTAL INGRESOS PRIVADOS**
**122.063€**

**Resultado del Ejercicio + 62.818€**

@medicusmundibiz
@medicusmundibiz
@medicusmundibizkaia
medicusmundibizkaia

bizkaia@medicusmundi.es

www.medicusmundi.es
www.medicusmundibizkaia.org/

BILBO / BILBAO

Virgen de Begoña, 20, bajo
48006, Bilbao - Bizkaia
Tel. 944 127 398

